

Goi

Goierritarra aldizkaria

370. zenbakia

2009ko azaroak 6



**SUNBILATIK
KANTUZ
KANTU**



**HITZARO
15 URTE
LANEAN**


**VIAJES
ABIO**
BIDAIAK
1999 2009

**BADATOR
ELURRA**
131€-tik
hasita

Kale Nagusia, 38
T 943 80 53 11
abio@abio.es



eta gainera
%7^{ko}
BEHERAPENA
Visa Viajes Iberia
bartzel berriarekin
ordainduz gero

www.abio.es

FAKTONE

berogas

langile elkarte, s.a.l.

Berokuntza, gasa, aire girotua, iturgintza.
 Instalazio industrialak eta etxeak, eguzki-energia.
 Sukaldeko eta bainuko altzariak, etxetresna elektrikoak.
 Aluminiozko eta Poliuretanozko leihoak .

Denda: Pº San Francisco, 10 – 20400 Tolosa
 Tel.: 943 653 307
 Tel. / Fax: 943 650 520
 E-mail: muebles@berogas.com

Bulegoak: Polg. Usabal, pab. 11A – 20400 Tolosa
 Tels.: 943 672 620 / 943 675 977
 Fax: 943 675 421
 E-mail: berogas@berogas.com

www.berogas.com



Medikuntza eta zirugian lizentziatuak:
I. Fdez Ornaburu Dra.
 (Medikuntza estetikoan masterra)
A. Ramirez Baigorri Dra.

- GANTZA KIRURGIARIK GABE KENTZEN DUGU ultrasoinuen bidez

NOBEDADEA

ULTRASHAPE CONTOUR I Metodoa

- laser depilazioa
- aurpegiaren gaztetzea
- peeling-ak, betetzeak
- toxina botulinikoa: zimurrak
- aurpegi eta gorputzeko mesoterapia
- gizentasuna, zelulitisa, masajeak
- azal azpiko terapia: LPG

Kursal
ZENTRO MEDIKUA
www.kursal.es

943 88 22 51

Garmendia Otaola, 7 - behea
BEASAIN



R.P.S.:32/04



Inaki Apalategi

Iepa Aitor!

Dagoeneko, sekretu gutxi izango dizkik bertsolari txapelketak, ezta? Etxean prestatzen saio batzuk egin, kotxean berdin, ideiak landu... gutxi gorabehera, guztiok diagu prestaketaren berri. Pixka bat gehiago sakonduta: zein bide hartu, agresibo ala lagunkide jokatu duan erabaki...

Hori guztia ondo joanez gero, "erraza" duk oholztatik beste bat, hiru, sei... botatzea.
Baina okertzen hasitakoan...

Aurrera ala atzera duk txapelketa, eta askotan ezin dituk "aurrera" eta "atzera" arteko aldeak zenbaki osoz neurtu.

Hori guztia ondo joanez gero, "erraza" duk oholztatik beste bat, hiru, sei... botatzea. Baina okertzen hasitakoan... Ez zegok astirik hausnarketetan hasteko. Ametsek txapelketan "bota eta ahaztu" egin behar dela esaten dik. Hik nola hartzen duk saioa, behin hasita dagoenean?



Aitor Sarriegi

Aupala!

Saioaren arabera, Apala. Txapelketari begira badiat kontsigna orokor samar bat: lehenengo bertsoa 6koa bota behar dik, eta haren atzetik okerragorik ez. Lehenengoa bota eta 6koa noiz den eta noiz ez arrastorik ez dugula izaten, hori dek arazoa.

Ametsek arrazoi dik, bera abila dek horretan (orain lau urte Markinara elkarrekin joan gintuan kotxean eta horixe bera komentatu genian). Teoria denok zekiagu, baina exekuzioan zegok gakoa. Berak bete egin zian, eta nik ez.

Jarrerak aldatzen dik bertsolaria,
eta jarrera dek "aurrera" ala "atzera"
egin arazten duena.

Txapelketarako prestakuntza, teknikoa baino jarrerazkoa gehiago dela uste diat. Laugarrena diat aurtengoa, eta dagoeneko teknikoki ez diat uste hobetzeko tarte handirik dugunik (ez gorenera heldu garelako, gure sabaira iritsi garelako baizik). Jarrerak aldatzen dik bertsolaria, eta jarrera dek "aurrera" ala "atzera" egin arazten duena. "Bota eta ahaztu"... Aukeran, nahiago ez ahazteko modukoak botatzea.

GOIERRITARRA diruz laguntzen duten erakundeak:

Alzaga, Arama,
Itsasondo eta
Legorretakoko udalak



Gipuzkoako Foru Aldundia

Goi
Goierriarria aldizkaria

HAMABOSTEKARIA
Argitaratzailea:
Goierriko Hedabideak S.L.
Urbialde plaza, 7 - behea
BEASAIN

Posta elektronikoa:
goierritarra@goierrikohitza.info
Telefonoak:
Erredakzioa: 943 16 00 56
Publizitatea: 647 319 757
Harpidetza: 902 820 201

Zuzendaria: Loinaz Agirre
Maketazioa: Mikel Albisu

Inprimaketa: Gertu

ISSN: 1132-0907
Lege gordailua: SS-926/89

GOIERRITARRAK ez du bere gain hartzen derrigorrez, aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

DEPARTAMENTO DE CULTURA
Viceconsejería de Política Lingüística

Ez da harritzekoa kontsumitzaileen
bulegoetan jasotzen diren erreklamazioen
herenak telekomunikazioekin zerikusia izatea.



Joseba Imaz Ganzarain

Aurpegia behar da gero!

“Zorionak! Audi markako auto baten zozketan sartzeko aukera irabazi duzu. Zure parte-hartzea baieztatzeko, deitu 12345 zenbakira”. Mugikorreko kilkerak esnatu nau, goizeko bederatzi-tan. Harrigarria. Begietako makarrak gogoz igurtzi ditut, baina bidali didaten SMSak hor jarraitzen du. Berebil eder bat irabazteko parada, nori eta telefono operadoreari esker!

Eguerdi partean, berriz, etxean harrapatu nau telefono dei batek. Karibetar tankerako ahots baten proposamena entzun behar izan dut. Orain arteko Internet, banda zabal, linea, kontratu eta bestelako zerbitzu guztiak hobetu egingo dizkidala, eta merkeago gainera. “Una oportunidad única”, sinestarazi dit. Demasa.

Oheratu aurretik pelikula bat ikusten ari naizela, beste behin ere mugikorreko kilkerra sentitu dut. “Ezetz asmatu zeinek maite zaituen. Deitu 54321 zenbakira eta jakingo duzu”, tentatu nau mezu berri batek. Sakeleko telefonoari erreparatu eta jada ez dakit zer daukadan begien aurrean: Nire lagunik onena ote? Ba al dago autoa oparitu, ADSLa merketu eta maitalea bilatzen dizuna baino adiskide hoberik?

Egia balitz sikiera... Zoritarrez, baina, telekomunikazio konpainiekin trataturik izan duen edonork –ia denok, beraz– badaki aspaldi pasa zutela publizitate garbiaren muga. Marketina aitzakia hartuta, izugarria da telefonoen bitartez –mugikorrean bereziki– jasotzen dugun iragarki iruzurti eta duda-mudako kopurua. SPAM telefonikoa deitzen diote.

Saltzeko saio gogaikarria baino, bezeroengandik diru gehiago lortzeko erabiltzen dituzten trikimailu eta egi-erdiak dira oke-

rrena. Ez da harritzekoa kontsumitzaileen bulegoetan jasotzen diren erreklamazioen herenak telekomunikazioekin zerikusia izatea. Eta gizajoak ditzosozko oportunidad única ren amuari hozka egiten diotenak: ez Audi, ez banda zabal, ez maitasun... eta sos batzuk gutxiago poltsikoan. Marketina baino, lotsagabekeria galanta!

Jasotako SMSak ezabatzen ari naizela, SPAM telefonikoa mugatzeko prestatzen ari ziren lege proiektua leundu egingo dutela irakurri dut. Espainiako Kongresutik dator notizia. Baliteke politikariek, sarri gertatzen den bezala, kobertura arazok izatea. Bestela ezin uler daiteke iruzurrari hesia jarriko dion lege zorrotz bati uko egitea. Zera merezi dute, egoera zein aspergarria den kontura daitezen: diputatuei egunero-egunero mezu bana bidaltzea. Adibidez: “Zorionak! Ministro izateko zozketan sartzeko aukera irabazi duzu. Zure parte-hartzea baieztatzeko, deitu 12345 zenbakira”.

Trikimailurik gabe hiritarren begirunea lortzeko modurik bada, zorionez. Horren erakusle da esku artean duzun GOIERRITARRA. Eguneroko istorio, bizilagun eta aurpegiekin lortu du goierritarron estimazioa. Tolesik gabe eta bertako hizkuntzan. Bejondeiola!

Itxuraberritutako gertutasunaren balkoi honetatik, noizean behin, mezutxo bat bidaltzeko aukera eskaini didate. Ea ba SMS iruzurtietatik aldentzen diren lerro hauek. Baliteke, hala ere, hau bezalako artikuluek marketinarekin zerikusia izatea. Azken finean, abestiak dioen bezala, nahi duguna esan eta ezkutatzeko aukera ematen digute kazetarioi. Aurpegia behar da gero!

JUBILATUENTZAKO KANPAINA



1.A ZERBITZU OPTIKOETAN

www.multiopticasgipuzkoa.com

Eskaintza hau indarrean egongo da 09/11/30ra arte. Ezin daiteke beste eskaintza edo promozio batzuekin pilatu.



Betaurrekoak erosten dituzunean kalitate bereko beste leiur batzuk dituen betaurrekoak* oparituko dizkizugu.

* Armazoiak oparituko ditugu, kalitate bereko leiurrekin

J. Carlos Guerra 1
Tel. 943 79 29 95
ARRASATE

Ibargarai 16
Tel. 943 76 15 75
BERGARA

C/ Nueva 15 - GROS
Tel. 943 32 66 49
DONOSTIA

Bidebarrieta 2
Tel. 943 20 05 22
EIBAR

Koldo Mitxelena, 7
Tel. 943 51 78 11
ERREENTERIA

Mendibil M. G.
Tel. 943 63 99 01
IRUN


J.M. Barandiaran Enp.
Tel. 943 88 99 88
ORDIZIA

San Frantzisko 23
Tel. 943 69 84 70
TOLOSA



A.P.S. Nº 19004 I.L.G.

Zarata, osasunaren kaltetan (I)



Zaratak ez du
belarrian eta
entzumenean
bakarrik eragiten,
ia osasun orokorrari
eragiten dio.

Kultura zaratatsua da gurea, zalantzarik gabe. Hainbat lekutan, jaiki orduko, zarata artean bizi gara, trafikoa, obra eta garbiketa makinak direla, lantegietan ere zarata artean, eta gaua iritsi, eta hiri eta herri askotan, zabor kamioiek, kale garbiketa makinek edo ondoko lantegiak sortzen duten zarata jasan behar dugu. Eta zer esan, hainbat taberna eta pub inguruetan bizi direnek jasaten duten zarataz. Horrela, Japoniaren atzetik, Espainiako estatua, munduko bigarren herrialde zaratatsuen da.

Zeri deitzen zaio zarata

Zarata, gogokoa ez den soinuari deitzen diogu. Zaratak alde subjektiboa du, pertsona guztiak ez baikara berdinak, horrela pertsona batzuk sentikorragoak dira zaraten aurrean besteak baino edo egoeran arabera. Adibidez, disko-teka batean 100-110 dezibelioko maila, onargarri eta atsegina izan baitaiteke ongi pasatzera joan denarentzat eta, aitzitik, 40 dezibelio jasanezin egingo zaizkio pertsona berari, lo egin nahi badu. Baina zarata objektiboki ere neurtu daiteke, alegia, soinuaren maila zenbat dezibeliotakoa den frogatu, sonometroen bidez.

Medikuntzaren ikuspegitik, zarata, entzumena galtzea eragin dezakeen efektua da, osasunarentzat kaltegarri izan edo jardura bat larriki era-

gotz dezakeen soinua, hain zuzen.

Zaratak ez du belarrian eta entzumenean bakarrik eragiten: epe labur, ertain eta luzera ondorio okerragoak ditu eta ia osasun orokorrari eragiten dio.

Espainiar estatuko herritarren %70ak, 65 dezibeliotik gorako zarata mailak jasaten dituela kalkulatu da, hau da, zientzialariek eta osasun arloko adituek, horien artean Osasun Mundu Elkarteak, onartezintzat jotzen duten mugatik gorakoa. Industrian ere milaka profesionalak galdu du entzumena enpresetako zarataren erruz.

Giza jarduerak sortzen duen zarata da gure ingurunean kutsadura ohikoena eta,

hain maiz jasaten denez, arreta gutxien sortzen diguna. Arazo horren aurrean sentsibiliterik eza antzematen da orokorrean. Administrazioa hasita dago neurri gutxi batzuk hartzen zaratari aurre egiteko: pantailak errepideetan, hiri arautegiak, ... baina arazoa hain handia da, oraindik ez dela nahiko arazoarekin amaitzeko, kontrola falta da eta neurriak betetzea. Eta gizartea, ulertezina bada ere, isilik geratzen da zarataren erasoaren aurrean. Talde edo auzo bati nabarmen eragiten dionean eta gaia hedabideetara iristen denean, bakarrik gogoratzen gara zarata badela eta jasaten dutenentzat gogai-karri dela.

Edurne Huesa Otegi

Dezibelioak	Eraginak organismoan	Hots iturriak
0-30	Ez da eraginik.	Txoriak kantari, liburutegia, zuhaitzetako hostoak.
30-55	Erreakzio psikikoak. Loak hartzeko zailtasuna. Loaldiaren kalitatearen galera...	Etxe barnean, ordenagailu pertsonala, hizketaldi arrunta.
55-75	Ahozko komunikazioan zailtasunak. Loaldia eteteko aukerak. Ahozko komunikazio nekeza.	Euria, jatetxe barruan, zurrunga, aspiragailua, telebistako bolumena altu, zabor-kamioia.
75-100	Sistema neurobegetatiboan eragin fisiologikoak. Erreakzio psikiko eta begetatiboak ugaltzea. Entzumen lesioen arriskua.	Diskotekan, isilgailurik gabeko motorrak, aireportutik gertuko etxebizitza, autobusaren bozina.
100-130	Nerbio zeluletan lesioak. Mina eta trastorno larriak.	Kaleko zulagailuak, eraikinen gainetik hegazkina igarotzen.
140	Minaren atalasea.	Hegazkina aireratzen, 20 metrora.

Iturria: CONSUMER Eroski aldizkaria

JAKIN BEHARREKOAK

SEO/Birdlife eta Centauro hirigintza espekulazioaren aurkako Avilako epaitegi batek momentuz makrourbanizazioaren lanak gelditzea lortu du, Villanueva de Gomezko udalak eman zituen baimenak 2006. Irregularitasunak eta ingurugiroan sortuko zituen eraginengatik gelditu dute. Lekuak balio natural handia du eta bertan 800 hektareako pinudia dago.

Berotegi Efektua eragiten duten gasen isurketa murrizteko ekimenak abiatzen dituen irabaz asmorik gabeko elkarte bat da. Bere bazkide eta laguntzaileen ekarpenetatik bizi da, eta ekarpen horiek energia berriztagarriko eta eraginkortasun energetikoko proiektuetara eta karbono hustutegietara bideratzen ditu. Hegazkinez edo kotxez mugitzen zarenean, zure isurketak ekonomikoki konpentsa ditzakezu, elkarte honek duen web orriaren bidez, baita zure isurpenak kalkulatu ere: www.ekopass.org

Unibertsoa eskura. 6dFGalaxy Survey proiektuak gertuko unibertsoaren mapa osatu berri du. 110.000 galaxiaren kartografia egin dute, orain arteko zehatzena. Sidneyko behatoki anglo-australiarak garatu du. Ikerketa eta datuak. www.aao.gov.au/local/www/6df/index.html ikus ditzakegu.

 **landarlan**
ingurumen taldea

Landarlan taldeak egindako orrialdea. Taldean parte hartu, gairen bat aportatu edo albisterran bat bidali nahi baduzu:
☎ 943161244 landarlan@yahoo.es

Denetik (XXVII)

Maizpide euskaltegia

Gizagaixo, gajo, gizarajo, gizagajo, "gizajo"...

Pertsonaren bat errukarria dela adierazi nahi izan dugun bakoi-tzean erabili izan dugu goiko hitz horietako bat. Kontua da euskara batuan lehen biak baino ez direla ametitzen (lehenengoa, gizonetzkoie esateko; bigarrena, berriz, emakumezkoie). Euskaltzaindiak, gainera, hitz hauek lagun artean bakarrik erabiltzeko gomendioa egin digu.

✗ Neska gizagaixo horrek zer ez ote zuen ikusiko! (*desegokia*)

✗ Neska gizarajo horrek zer ez ote zuen ikusiko! (*desegokia*)

✗ Neska gizajo horrek zer ez ote zuen ikusiko! (*desegokia*)

✓ Neska gajo horrek zer ez ote zuen ikusiko! (*egokia*)

✗ Antonio gajoa, joan den astean emaztea bil zitzaion eta jota dago gizona! (*desegokia*)

✓ Antonio gizagaixoa, joan den astean emaztea bil zitzaion eta jota dago gizona! (*egokia*)

Gizon zein emakumeentzat gaixo hitza erabiliko dugu:

✓ Gure lagun gaixoak! Oporretan ondo ibili besterik ez eta... (*egokia*)

Edadeko jendearentzat egundoko oporrak izango dira aurrerantzean!

Ez dakigu 60 urtetik gorako jende guztiak izango duen Imersoko edo aurrezki kutxaren bateko bidaia datarren hilean edo hurrengoan! Badakigu, ordea, Goierrin hain maitea dugun (eta hitzetik hortzera erabiltzen dugun) edadeko hitza Euskaltzaindiak herri-mailakotzat duela eta, horren ordez, euskara batuan idazten ari bagara, adineko erabili behar dugula.

✓ Adineko emakumeek maiz izaten duten gaixotasuna da (*egokia*)

✗ Edadeko emakumeek maiz izaten duten gaixotasuna da (*desegokia*)

Berdin jokatu dugu edade eta edadeturekin; horien ordez, adin eta adindu erabiliko ditugu.

"Gogo batzuk dauzket!"

Goierrin makina bat aldiz entzungo genuen arren, ez da oso txukuna goiko esaldi hori! Hasteko, "batzuk" hori lekuz kanpo dago (gazelaniatik abiatuta egindako "itzulpen kaskarra"); "dauzkat" horren ordez, berriz, daukat edo dut erabili beharko genuke!

✗ Noam Chomsky ikusteko gogoak ditut (*desegokia*)

✓ Noam Chomsky ikusteko gogoa dut / daukat (*egokia*)

✓ Noam Chomsky ikusteko irrikan nago (*egokia*)



Gure Romeo... Maritxuri zirriak egiteko prest!

ZUZENDU, BEHAR IZANEZ GERO...

1. Adineko pertsonekin zakar samar portatzen da Anjelinen semea.
2. Bidaia helikopteroz egiteko gogoa zuela esan zidan Esperantzak.
3. Arrain gaixoak! Egosita hil ez direnean!
4. Josu gaixorik dago. Gizagaixoak egun osoa ohean eman du, hotzez dar-dar!

OHARRA: denak zuzenak, alajaina!

IBAI ONDO
AROSZTEGIA

Logela, egongela eta sukaldeko altzari nahiz osagarrietan aukera paregabea

Altzariak neurritara

Mota guztietako aroztegi lanak

PVC eta aluminiozko leihoen fabrikazioa

☎ 943 16 40 40 - 639 631 640 faxa: 943 16 47 47

Antzizar-Katea, 5 BEASAIN

- ✗ Jabekideen komunitatea osatzea
- ✗ Komunitateen kontabilitatea
- ✗ Akten idazketa
- ✗ Aurrekontuen eskaera
- ✗ Aholkularitza legala
- ✗ e.a.

AUZOKI
Komunitateen administrazioa
Kol. Zenb. 599

Urdaneta 52-behea
ORDIZIA
Tel.: 943 087 486

Ahoa eta osasuna

Medikuarengana joaten garenean, buruko min bategatik adibidez, ez gara harritzen gure osasunari buruz galdetzen badigu. Tentsioa begiratzaren digu, galdetzen digu ea erretzaileak garen, nola dugun sabela botikak hartzeko eta behar baldin badugu odolaren analitika bat eskatzaren digu.

Gauza guzti horiek normalak direla iruditzen zaigu, ze batzuetan gaixotasun bat sendatzeagatik beste arazo bat sortu dezakegu botikaren bidez. Hortaz, beharrezkoa da gure medikuak eguneratuta edukitzea gure istoriala.

Baina, dentistarengana joaten garenean, zergaitik iruditzen zaigu arraroa gure medikuak egiten dizkigun galderak erantzutea? Burura etortzen zaigun lehenengo gauza zera da: "Ze garrantzi du nire osasun egoerak hagin bat kentzeko?" Beno, ahoa buruan dago eta burua gorputzaren zati bat da, hortaz, gure gorputzean gaixotasun bat baldin badago eta ez baditugu behar diren neurriak hartzen, hagin bat kentzeagatik edo enpaste simple bat egi-

teagatik benetako arazo serioak ager daitezke.

Kontuz hainbat gaixotasunekin

Huskeri bat iruditu arren bakoitzaren gorputza ezberdina da eta hobe da arriskurik gabe gauzak egitea.

Gaixotasun asko daude baina orokorrenak aurkeztuko ditugu ahoarekin zer ikusi dutenak:

■ **Diabetesa:** kontutan hartu behar dugu azukrearen maila ez badago ondo larrialdi bat sortu daitekeela eta hagin bat kentzen badugu entziaren zikatrizazioa motelago izango dela.

■ **Tensio altua:** jartzen diren anestesiaz batzuk tensioa igotzen dute, beraz kontutan hartu behar da kasu hauetan.

■ **Bihotzeko arazoak:** Edozein tratamendu egiteko gutxienez hiru hilabete itxaron behar da eta tratamendu bat egin aurretik antibiotiko bat eman behar da.

■ **Minbizia:** Radioterapia edo kimioterapiak asko ahultzen du pertsona, eta ahoko tratamenduak ezin dira bi

hilabete pasa arte egin. Infekzio larri bat sortu daiteke gorputzak ondo sendatu ezin duelako.

■ **Sabeleko ultzera:** kasu hauetan botika bat hartu behar baldin bada, kontutan izan behar dugu ezin dela edozein botika hartu eta beti sabelarentzako proktore batekin.

■ **Artrosia:** ahoan ere artikulazio bat dugu, beraz zeinek esaten digu ezin dela azaldu gorputzeko beste artikulazioetan bezala?.

■ **Odoleko arazoak:** jende askok hartzen du Sintrona. Hori dela eta, hemorragi bat ez izateko, garrantzitsua da honen inguruko datu guztiak edukitzea.

Egia da gure osasunari buruzko datuak ematea ez dela gustokoa, baina beharrezkoa da ahoan egin behar diren tratamenduak ondo egiteko eta arazorik ez sortarazteko. Gainera datu guzti horiek historialetan gordetzen dira eta konfidentzialak dira.

Hortaz, denon hobe beharrez, osasuna kontrolatuta edukitzen badugu, den dena ondo joango da.



Nerea Larrea Oiarbide
Odontologo zirujaua
Beasain

Gaixotasun bat baldin badago eta ez baditugu behar diren neurriak hartzen, hagin bat kentzeagatik edo enpaste bat egiteagatik benetako arazo serioak ager daitezke.



txekin

www.txekin.net

zugaztibi@telefonica.net
Tel.: 943 16 23 86 - 943 16 15 58
Faxa: 943 16 15 58
Domingo Unanue plaza, 5 behea
ORDIZIA

- Laborala
- Fiskala
- Kontablea
- Juridikoa
- Aseguruak
- Inmueble
- agentzia

9:30etik 19:00etara
EGUARDIZ IREKITA

xetai

nafarroa etorbidea 1
beasain
www.xetai.net



Autowag




☎ 943 888 254
☎ 943 888 266
Faxa: 943 888 105
N-1 errepidea, 419 Km
BEASAIN



Erramun Amundarain



“Aberastasun handia konpartitzea tokatu zaigu mahaiaren bueltan”

Goierrri Lanbide Eskolako irakaslea. Herri afari eta bazkari ugari prestatzen du. Laguntasuna Errondailako abeslaria. Txikiteroa.

Soldadutzan ez omen zen ezer onik ikasten.

Nik uste dut soldadutzan gauza asko ikasten zirela: jende ezezagunarekin konbibentzia eta genituen beharrei erantzuten ikastea. Adibidez, behar horietarako bat zen, sukaldaritzia.

Ondo jaten al zenuten?

Gu erabateko pribilegiatuak ginen. Garai hartan egunean 45 pezeta geneuzkan kontsumitzeko. Kuartelara joan behar izaten genuen. Nik esan nien, diru hori guri emateko eta guk antolatuko genuela otordua barkuan. Marinel bakoitzagatik 45 pezeta ematen zizkiguten eta gure kasa egiten genituen, bai erosketak eta bai otorduak. Lujoa zen.

Tripa goxatuta egiten omen dira negozioirik onenak.

Bai, nik uste dut baietz. Ondo jatea garrantzitsua baina ez bakarrik negozioak egiteko, ondo pasatzeko ere bai. Guri lan pixka bat egitea konpartitzea zaigu otorduak prestatzen, baina aberastasun handia konpartitzea tokatu zaigu mahaiaren bueltan. Jende asko ezagutzen duzu. Oso berezia da, oso polita, eta herriaren arabera oraindik politagoa.

Zer gustatzen zaigu gehien goierritarroi?

Haragia eskatzen da gehiena. 100 kilo entrekot prestatu genituen bazkari batean. Pentsa zein abiadan ibili behar den. Eguerditan, paella ere izugarri gustatzen da.

Puntua harrapatzea zeri kostatzen zaizu gehiena?

Puntu arazorik ez dago. Arazoa izaten da, ordua jarri eta jendeak ordu ez errespetatzea. Arrozarekin desastrea da hori.

Ikasleak goxatzeko errezeta:

Ikasleak naturalitatez tratatu behar dira eta gu ere garen bezalakoak izan behar gara. Hori eskertzen dute ikasleek.

Otordu on batek, edari ona eskatzen du.

Edaria oso inportantea da. Edateko kultura galdu egin da. Lehengoan irakurtzen nuen, “edaririk gabeko otorduak, ostira-

leko mozkorra”. Guk txikitatik ikasi genuen edaten, modu bate-ra. Oraingoek ez dute ikasi edaten eta kolpetik edaten dute, eta helburu bakarra, mozkortzea da.

Txikiteroak krisian al daude?

Txikiteroak daude krisian eta onenean berriz psikiatrikoak. Guk Txikitero eguna antolatzen dugu Ordizian eta ekintza sozial bat da. Ekintza sozial horretan, mozkortzeak suposatzen du, norberaren hasarrea eta lotsa sentitzea. Txikiteoa galtzen ari da, arrazoi ekonomikoengatik, eta bestetik, jendea ez dakit zer iruditzen zaion, txikiteoan ibiltzea egunero mozkortuta ibiltzea dela... Gaizki ikusita dago. Pena da horrelako ohitura bat galtzea. Sendagile batek zorionak eman zizkidan, txikiteoarekin jarraitzeko, geroz eta jende gehiago baitago buruko arazoekin, agian, ez dituelako bere arazoak jendearen aurrean kontatzen.

Eta herri giroa?

Izugarri nabaritzen da herri txikia ala handia izan. Gazte jendearen partehartzea egunez, nahiko eskasa da, gauean, oso berandu ateratzen dira. Baina badaude herri bereziak.

Otordu eder bat bukatzeko, kantu saioa ondo al dator?

Bai, bai. Guk asko kantatzen dugu. Normalean beti abesten bukatzen dugu. Nik uste dut jende batek berreskuratu nahi duela kantu giroa.

Lehenengo plater bat:

Entsalada berezi bat: letxuga, tomatea, gazta, gulak, langostinoak, eta fruta pixka batekin nahastuta.

Bigarren plater bat:

Legatz kokotxak almejakin, saltsan.

Postre bat:

Ez naiz postre zalea. Orain dela gutxi postre berezi bat egin nuen: kopa handi bat, basoko fruten mermelaz zikindu, intxauro batzuk bota, eta gainetik mamia bota.

Edari bat:

Ardo beltza.

KALITATE TURISTIKOAREN Q-A

Kanala Hotelak 2007an ezarri zuen Turismoko Kalitatearen Q marka. Itziarren koka-tuta dagoen hotel hau, ziurtagiria lortu zuen lehena izan zen inguru horietan. Hoteleko zuzendari den Julen Beaskoak, aldaketa nabariak antzeman ditu hotelaren eguneroko lanean ordutik hona, eta astia duten enpresariei, Q marka ezartzea gomendatzen die.

Julen Beaskoak

Itziarko Kanala Hoteleko zuzendaria:

“Q markarekin lan erdia eginez ate-ratzen dugun etekina bikoitza da”

- Zergatik erabaki zenuten turismoaren sektorearekin zeri-kusia duten sistemen eta pro-gramen alde egitea?

Batez ere, kanpotik datozen bezeroei segurtasuna emateko. Hemengo jendeak jadanik eza-gutzen gaitu, baina ezezagunek segurtasuna bilatzen dute beti hotel batera joaterakoan eta Q markak kontrol bat dugula ziur-tatzen du.

- Zeintzuk abantaila eman dizki-zue Turismoko Kalitate ziurtagi-ria (Q marka) izateak?

Abantailak aurrean aipatutakoak dira, ezagutzen ez gaituenaren aurrean izena izatea, organizazioa kontrolatuta egotea alegia. Batzuk hotela gustatzen zaielako etortzen dira, baina beste asko asteburuetan etortzen dira eta horiek askotan esaten dute: ‘Q marka du! Tira ba!’

- Zeintzuk izan dira ezarpen honen ondorioz izandako barne hobekuntzak antolaketari kude-aketari eta azpiegiturari dago-kionez?

Gure erara antolatzen ginen lehen eta orain ere gure antola-keta dugu. Q markaren proze-suak, berriz, antolaketa horren barruan zer lan egin behar diren irakatsi digu, dena kontrolatuta

izatera. Kudeaketan ez dugu ia ezer aldatu, genuena guztiz oke-rra izan balitz bai, baina ez zen gure kasua.

- Zein hobekuntzek izan dute eragina bezeroarengan zuzene-an?

Bezeroak ez du hobekuntzarik antzematen, baina gure lanean egin ditugun aldaketei esker aka-tsak topatzea zailagoa da. Gauza bakoitza bere artxibategian erre-gistratuta dago eta dena garbi dagoela kontrolatzea erreza da edo janaria ustelduta ez dagoela, besteak beste.

- Nola animatuko zenituzke turismoko profesionalak Turismoko Kalitatearen ‘Q’ marka ezartzera?

Ahal badute, ezartzeko esango nieke. Guk hotela eta jatetxea dugu eta bietan ziurtagiria lortzeko urtebeteko prozesua jarraitu dugu. Denbora apur bat behar da eta diru aldetik, ez da berehalako aldaketarik igartzen baina gauza asko ikasten dira eta merezi du.

- Ziurtatutako kalitate sistema-rekin lan egitea gomendatuko zenieke beste enpresari batzuei?

Bai, lehen aipatutakoagatik.

- Turismoko Kalitatearen pro-zesuak Kanala Hotelaren lehiakortasunean eragina izan duela uste duzue?

Ez. Lehen ere eta lan handia-goia egiten bagenuen ere, gure antolaketa genuen eta merka-tuan geunden.


- Turismoko Kalitatearen pro-zesuan zeintzuk atal landu eta ezarri zenituzten? Horietatik zeintzuk izan ziren garrantzi-tsuenak edo erabilgarrienak? Den-dena erregistratzeko ohi-tura hartu dugu Q markari esker: eguna eta ordua, eguna eta ordua. Gauzak egin eta horrek idatzirik laga behar dira. Garbiketa egiterakoan edo zer-bait hondatzerakoan, esaterako. Elikagaien kamioiak heltzerako-an graduak ere apuntatzen ditugu eta horrela mila adibide daude. Horri esker, lan erdia eginez ateratzen dugun etekina bikoitza egiten dela ikusi dugu.

- Zeintzuk aldaketa egin dituzu edo egiteko asmoa duzu kalita-tearen kultura sustatzeko?

Aldaketarik ez da egon, baina gure 16 langileek formazioa jaso dute eta bakoitzak bere erantzukizuna du, guztion arte-an kalitatezko zerbitzuak eskaintzeko.



CALIDAD TURISTICA



Eusko Jaurlaritzak, Turismoaren Euskal Agentziarekin, Basquetourrekin batera, beharrezkoak diren erre-mintak eta laguntzak eskaintzen dizkie enpresa-riek, euren elkarteak lehia-korragoak izan daitezen. Hori lortzeko honako pro-grama hauek eskaintzen ditu:

- Ekintza Onen programa. Horren helburua enpresarien ‘pro-fesionalizatzea’ da eta kontzien-tzia sortzea. Euskadiko 274 esta-bezimenduk jaso dute Turismoko Kalitatearen konpromisoaren diplo-ma.

- Kalitate Turistikoaren Q programa. Bezeroen asebete-tzea bermatzen du. Euskadin, 267 establezimenduk dute Turismoko Kalitatearen Q marka.

- EFQM bikaintasunaren eredua programa. Horrek kalitatearen bidez bikaintasuna lortzea proposatzen die establezi-menduei. Euskadiko 17 establezi-menduk hartzen dute parte eredu honetan.

Jarri kalitate turistikoa Q-a zure establezimenduan
94 607 75 86
94 404 74 70
www.turismoa.euskadi.net



Hitzaro 15 urtez, maitasunez, Ordizia zirikatuz

Ordiziako Hitzaro Euskara Taldeak 15. urteurrena ospatu berria du. Aisia, komunikazioa, normalizazioa eta kultura, esparruak ardatz hartuta lanean ari da Hitzaro. Hemendik aurrera gainera, norabide berria ere hartzeko asmoa daukate ordiziarrek, Goierriko gainerako herriei ere, aisia- ren esparruan, zerbitzu eskaintza zabalduz.

‘Norantza
bera,
norabide
berria’



1994ko uztailaren 1ean Barrenan elkartu ziren Hitzaroren bazkideak, argazkia atera eta elkartea herritarren artean ezagutarazteko.

2004. urtean Hitzarok 10 urte bete zituenean, bere historia biltzen zuen aldizkaria argitaratu zuen. Hitzaroren helburuak, ordura arte egindakoak eta helburu berriak laburbiltzen ziren bertan. 15. urteurren honetarako ere balio duelako, hona hemen sarre-rak diona. “Joan diren hamar urteotan Udalarekin, herriko elkarte eta erakundeekin, ikastetxeekin eta euskaltegiarekin elkarlanean aritu da Hitzaro; guztien indarrak batu nahi izan ditu euskarari dagokion leku duina emateko. Azken batean, ordiziarren artean euskararen inguruko adostasun-puntuak lantzen saiatu da, iritzi edo pentsamolde ezberdinei leku eginez, eta batzuen zein besteen ikusmoldeekin begirunez jokatu. Bere lanaren bitartez argi eta garbi erakutsi du herri aginteen lana eta gizarte eragileen ahalegina, elkarren

osagarri izateaz gain, elkarren lagungarri ere izan daitekeela.

2000-2003 epea, bereziki izan da uzta oparokoa. Inoizko ekoizpen edo produktiorik handienekoa Hitzarorentzat. Handitze-

Plana (EBPN) gestionatu eta dinamizatzan.

Baina 2004. urtea hastearrekin batera erabat aldatu da Hitzaroren eta bere Bulego Teknikoaren egoera, Udalak EBPnaren gestio zuzena

Hitzarok guztien indarrak batu nahi izan ditu euskarari dagokion leku duina emateko.

arekin batera (egitasmo gehiago, langile gehiago, aurrekontu handiagoa...), elkarte kudeatzeko era ere egokitu egin du Elkarteak. Bulego Teknikoa sortu zuen 1999an, egituraketa eta lan molde berriei atea zabaldua, eta Euskararen Biziberritzeko

hartu duelako bere gain eta orain artean Hitzarok bultzatzen zituen ekintza asko eta asko EBPnaren txertatu direlako. Gauzak hala, Hitzarok goitik behera aldatu behar izan du bere egitasmoa. Eta, egitasmo guztiz berritzailea osatu du.

Elkartearentzat bide berri baten hasiera markatu du 2004. urteak. Hitzarok nahi-taezkoztat dauka euskaldunek euskararen belaunetz belauneko jarraipenari eustea. Ugaldu egin nahi dute, gero eta gehiago, eskolaz kanpo euskaraz egindako ekintzak. Euskararentzat hiz-tun berriak irabazten eta era-kartzen jarraitu behar delakoan dago. Ezinbesteko ikusten du euskararen erabilera oraindik hutsaren hurrengo den erakunde nahiz elkarte-en jarrera pixkanaka alda-tzea.

Hain zuzen ere, Hitzarok prestatu duen egitasmo berrian lau helburu nagusi jaso dira: euskaraz arituko diren esparruak osatzea; euskararen aldeko dinamika soziala sustatzea; identitate euskalduna indartzea, eta euskaraz egindako kultura sustatzea”.



Jose Luis Gonzalez, lehenengo lehendakaria

Nola gogoratzen duzu Hitzaroren sorrera?

Gipuzkoa mailan beste elkarte batzuk sortu ziren. Arrasaten eta Tolosan bazegoen euskara taldeen mugimendua. Momentu hartan, ikusten zen, euskalzaleen indarrak batu egin behar zirela, era batera edo bestera. Euskal Herrian Euskaraz eta beste talde batzuk bazeuden euskararen alde lan egiten zutenak, baina egoera politikoagatik edo ez dakit zergatik, hori sentitu zen. Ideologia ezberdinetako jendea elkartu ginen, euskara izango zen motorra, ez besterik.

Aurkezpen argazkia begiratuta, orduko alkatea, Juanbi Erauskin ere bazkideen artean azaltzen zen.

Instituzioak inplikatzeko nahi genuen, azken finean, dirua daukatenak beraiek baitira. Herriaren dirua beraiek daukate eta beraiei lana da diru hori banatzea. Guk ikusten genuen, indarrak gero eta gehiago zabalduz, dirua biltzeko modu bat zela eta Udalaren lana dela dirua banatzea.

Altamirako lokala nahiko azkar lortu zenuten. Aurretik non biltzen zineten?

Hasieran, Barrenan biltzen ginen, astean behin, martxan jartzeko. Beste herrietara joan, batekin eta bestearekin hitz egin, Kike Amunarriz etortzen zen Galtzaunditik... Taldea osatuta zegoenean, Estatutuak onartu zirenean, Altamirara joan ginen.

Zein esparrutan edo eremutan hasi zineten lanean? Zein izan zen lehenetasa?

Uste dut, ahal zen jende gehiena biltzea izan zela lehenengo lana, bazkideak egitea. Hortik aurrera, programa bat osatu zen, zein eremutan lan egin behar genuen eta gero lana eta lana.

**Zirikatzaile lana ere bete du Hitzarok,
hor egonez, beti atzetik ibiliz.**

Hitzarok zer ekarri dio Ordiziari?

Aisialdia adibidez, asko landu da. Eskolatik kanpo euskaraz aritzeko eremua izatea ekarri du Hitzarok. Kultur ekintzak ere hor daude. Zirikatzaile lana ere bete du Hitzarok, hor egotea, jendearen atzean ibiltzea. Zirikatu, baina maitasunez. Lan desatsegina da, baina nik uste dut hori ere badela Hitzaroren lana. Nik uste dut, gutako bat ikusitakoan, jendea ere euskaraz hitz egiten hasten dela.

Aipatu bezala, 1999. urtean aldaketa kualitatiboa eman zuen Hitzarok. Bulego Teknikoa martxan jarrita, Goitik behera aldatu zen ordura arteko gestio eredua. Elkartearen jarduna profesionalizatu egin zen. Ahalegin berezia egin zen bazkideak elkartera gerturatzeko. 1999ko urte hasieran, 'Bi ordu Hitzaroren alde' izeneko kanpaina egin zen eta 25 bazkidez osatutako lan-poltsa osatu zen. Denborarekin, soldatapeko langileak jarri zituzten. Gaur egun, hiru langile dabilta lanean: Igor Eguren, Alazne Elortza eta Aintzine Anduaga.

Hitzarok 15 urte bete ditu, baina zu berria zara Igor. Zer aurkitu duzu Hitzaroren Zerta ari zarete lanean?

Ni berria naiz, baina aurrez irakurritakoagatik eta orain egiten dugun lanagatik, 15 urteetan lan ildoa definitu dugu. Orain lantzen ditugun lan ildoak lehendik datoz. Hitzarok batez ere lau esparrutan lan egiten du: aisia, normalizazioa, kultura eta komunikazioa. Hitzaro Euskara Elkarte bezala definitu dugu beti baina Hitzaro Elkarte Kulturala da. Beti esan izan dugu, Hitzaroren helburua ez dela euskara bakarrik. Hitzaroren helburua da, euskarari esparrua bilatzea, euskal kultura indartzea, trinkotzea eta indentitate euskalduna sustatzea, nahiz eta denaren motorra euskara izan. Urtean zeharreko ekintza garrantzitsuenak aisiari begiratuta daude, eskolaz kanpo ordu horietan umeak euskarazko esparruak izan ditzaten. Gaur egun kudeatzen dugu Udalaren udako udalekua eta Urdaneta eskolarako ere beste udaleku bat egiten dugu. Datorren urtean aldaketak izango dira ziurrenik. Eguberrietan, Aste Santuetan ere aisia ekintza garrantzitsuak egiten dira eta haur askok parte hartzen dute.

Kulturaren ere lan asko egiten du Hitzarok. Adibidez, bukatu berria Ordizia Kantuz ekimena.

Bai hala da. Kultur mailan ere

ekintza ugari antolatzen dugu, adin ezberdinetako jendeari begira. Antzerkia, musika, pailazoak, Ordizia Kantuz, aurten bigarren bezain dugun eta oso arrakastatsua izan den Goierriko Kultur Zirkuitua... Hilero-hilero ikastaro bat egiten dugu.

1999. urte garrantzitsua izan zen Hitzarorentzat, baina 2004a ere bai.

Bai, 2004. urtea izan zen hurrengo aldaketa nabarmena: Euskara Biziberritzeko Planaren Barruan (EBPN) Hitzarok egiten dituen hainbat eta hainbat ekintza EBPNk hartu ditu bere gain eta ordutik gaur arte, urterotero, elkarlaneko hitzarmena sinatzen du Hitzarok Ordiziako Udalarekin. Urtero berritzen da.

Lelo berria ere aurkeztu du Hitzarok 15. urteurrenarekin batera. 'Norantza bera, norabide berria'. Zer esan edo bilatu nahi duzue?

15. urteurrenari lelo berria jarri diogu, 'norantza bera, norabide berria', arrazoi batengatik: arrazoia da, Hitzaroren norantza orain arteko bera dela, hau da, euskara indartzea, euskarari



esparruak bilatzea, eremu publikoetan euskarari tokia egitea. Norantza horrek orain 15 urte bezala jarraitzen du. Norabide berria gehitu diogu, azkeneko batzarrean erabaki zelako, batez ere aisian daukagun esperientziagatik eta egiten ditugun ekintza mordo horregatik, nahiz eta orain arte gure esparru geografikoa Ordiziara mugatu den, eskaintza bat badaukagu eskura, Ordizian ezezik, Goierri ere emateko. Zerbitzu eskaintza bat osatu dugu, guk egiten ditugun

Hitzaroren helburua, euskarari esparrua bilatzea da, euskal kultura indartzea, eta identitate euskalduna sustatzea, nahiz eta denaren motorra euskara izan.

Hitzaro elkarte

Sorrera data:

1994ko maiatza. 1994ko ekainean legeztatu ziren Estatutuak.

Bazkideak:

Hasieran 80; gaur egun, 220.

Izena:

Ordiziako bertso-eskolakoek proposatutako zerrendatik (Adi, Aldarria, Auzolanean, Bizi Bedi!, Bizkor, Bai Euskarari, Bai!, Euskarari, Gaur biharko...) Hitzaro aukeratu zuten bazkideek, hirugarren bozketan. Emandako 42 botuetatik 23 eskuratu zituen Hitzarok, eta 19, Azajorran-ek.

Logotipoa:

Asier Mendizabal ordiziarrek irabazi zuen logotipo lehiaketa 1995. urtean. Ahoa eta begia duen H formako arrain berdea.

Egoitza:

Barrena Kultur Etxean hasieran, Altamirako auzoko Eskolan gero, Milagrosa ikastetxean orain.

Helburuak:

Euskararen erabileraren normalizazioa. Herrian euskararen erabilera bultzatuko duen dinamika sozial eta zabala eragitea, eta euskal kultura bultzatzea eta sustatzea.

SOLOZABAL
AUTO-ESKOLA

Mota guztietako gida-baimenak

Aita Urdaneta
ORDIZIA
☎ 943 88 72 76



Oskarbi Oinetakoak
Nagusia 34
Tel 943 881 944
Ordizia

Oskarbi Oinetakoak
Nagusia 34
Tel 943 884 104
Beasain

Oskarbi Oinetakoak
Sekundino Etnaola 8
Tel 943 721 978
Zumarraga

Oskarbi Oinetakoak
Erdiko Kallu
Tel 943 711 804
Arrasate

O



MUJKA
LIBURUDENDA

Tel. / faxa: 943 88 11 94
Kale Nagusia, 19 ORDIZIA

ekintza ezberdinekin: hau-
rrentzat, nerabeentzat, hel-
duentzat tailerrak, ikastaro-
ak... halako parrilla bat osatu
dugu, guk eskura ditugun eta
ezagutzen ditugun ikastaro
eta tailerren inguruan.
Udaberrian, Goierriko udale-
txe guztietan izan ginen aur-
kezpena egiten eta orain ikas-
tetxeekin ari gara biltzen.

Zergatik? Hitarok poten-
tzial hau izanda, eta dauka-
gun krisia ikusita, guk ere
gure norabidea zabaldu egin
behar du, elkartearen beraren
biziraupenerako, sarrerak igo-
tzeko eta hau dena manten-
tzeko. Horiek denak,
Elkartearen biziraupenerako
balio du. Baina ikusten dugu
potentzial handi bat daukagu-
la eta ez daukagu zertan
Ordiziara mugatu.


**Hitarok beste erronka bat
ere badu eskuartearen:
elkarrekin hitzarmenak
egitea. Ordizia Errubgi
Elkartarekin lanean
hasita zaudete.**

Jose Luisek aipatu duen ziri-
katzaile lan horretan, helbu-
rue da, hizkuntza hiltzen ez
uztea eta erabilera bultzatzea.
Zentzu horretan aurten
Hitarok, apustu garrantzitsua
egin du. Hitzaro Euskara
Elkarte bezala, Topagunean
gaude eta urte hasieran pro-
posamen bat egin zuen:
aurrez landuta dagoen meto-
dologia baten bitartez, elkar-
teetan hitzarmengintza pro-
grama aurrera eramatea.
Herriko edozein elkarteren
inguruan, hausnarketa egitea,
diagnostikoa egitea, elkarteak
katalogotzea (elkarte euskal-



duna dena ala ez, euskaldun-
tzeko bidean dauden ala ez,
edo euskararen sustatzaile
izan daitekeen ala ez).
Programa piloto batean sar-
tzea proposatu ziguten.
Horrek eskatzen zuen herriko
bi edo hiru elkarterekin harre-
manetan jarri, diagnosia egin
eta diagnosiaren arabera,
elkartarekin hitzarmena sina-
tzea. Zein helbururekin?
Elkartea bera euskalduntzea
edo euskararen sustatzaile
bihurtzea. Baietz esan genion
egitasmo horri. Euskal
Herriko lau herrik esan diogu
baietz ekimen horri aurten:
Deustu, Ermua, Atarrabia eta
Ordizia.

Ordizia Errubgi elkarte-
rekin egin dugu bidea eta
hitzarmena egin dugu.
Gutxieneko akordioa lortu
dugu. Hitaroren helburua ez
da inor ezertan estutzea, bai-
zik eta tresna batzuk mahai
gainean jartzea, beraiekin lan
egitera gatoz. Oso gustura
gaude.



*Erdiko argakzian Lorea Deba eta Maria Nazabal,
Hitaroren bulego teknikoko lehen langileak.
Bebekoan gaur egungoak: Igor Eguren, Alazne Elortza
eta Aintzine Anduaga.*



ASEPLAN S.L.
A HOLKULARITZA - ENPRESAK

KONTABLEA
JURIDIKOA
LABORALA
FISKALA
MERKANTILA
INMOBILIARIA
FINKEN ADMINISTRAZIOA



Tel.: 943 887 129
Oriamendi 15, behea
BEASAIN
Tel.: 943 086 420
J.M. Iturriotz, z/g



Pottoka
KAFETEGIA

- Pintxo hotz eta beroak
- Ogitartekoak

Legazpi kalea, 3

ORDIZIA

☎ 943 16 03 04



Sunbilatik kantuz kantu

Antton Erauzkin zaldibiarra eta Jon Zubeldia aramarra herriz herri dabilta kantuan

Kantuz kantu dabilta azkenaldian, Hondarribian bizi den Antton Erauzkin zaldibiarra eta Beasainen bizi den Jon Zubeldia aramarra, orain 35 urte bezala. Duela 3 urte, Sunbillan kantuan hasi zirenetik, ez dira gelditu abeslari beteranoak. Diskoa ere kalera-tu dute. Jendeari euskal kantuak kantatzeko bidea eman nahi diote.

Araman, San Martin jaien barruan, ekitaldia izango du 'Sunbilatik Kantuz Kantu' taldeak. Taldearen izenari begiratuz, Nafarroa aldeko taldeaz ari garela uste badaiteke ere, bi goierritar dira bertako protagonistak: Antton Erauzkin eta Jon Zubeldia. Ondoan, Egoitz Maia zumaiaarrak eta Juan Carlos Sasso Astigarragan bizi den argentinarrak osatzen dute taldea. Antton Erauzkinek, ahotsa jartzeaz gain, ahoko soinua ere jotzen du. Jon Zubeldiak, gitarrarekin batera, abestu ere egiten du, ahots baxua.

Taldearen izenak, sorrera lekua aipatzen du. Antton Erauzkinek kontatu digu

hasiera zein izan zen. "Duela hiru bat urte, Sunbillan nengoan. Ostalaritza eta kanping negozio bat neukan. Jon, betiko laguna dut, eta askotan etortzen zen afaltzera, bazkal-tzera edo lo egitera. Afalondoren, kantuan hasten ginen. Han afizio handia dago, hemen baino gehiago, eta azkenean jarri egiten zara. Behin abestu eta ze ondo egiten genuen eta hurrengo baterako gelditu ginen. Hurrengoan ere bai... Behin, zumaiair koadrila bat, Egoitz Maia tartean, bungalow batean zeuden. Afaltzera etorri ziren eta gu kantatzen hasi ginen. Zumaiair koadrila hura harrituta gelditu zen eta ea



Duela 35 urte

Orain dela 35 urte ere ibili ziren kantuan Erauzkin eta Zubeldia. "Ordiziako Oiangu tabernari bonba bat jarri zioten, erre egin zen, eta plazan jaialdia egin zen eta han kantatu genuen. Legorretan, Korta hil zutenean han izan ginen... Orain gu ikustera joaten diren gehienak garai hartan gu entzuten gintuztenak dira. Ondo ibili ginen. Gero utzi egin genuen. Zergatik? Lana eta parranda... soldaduska... Geroz ez dugu gehiago kantatu".

Urteak pasatu badira ere, zenbait arlotan antzera gaudela diote: "Orduan kontuz ibili behar zer kantatzen zen. Mentalki, orain 30 urte bezala gaude eta horrek ere asko egiten du. Orain ikurriña bakarrik jartzetik ez dago ia. Berriz ere, 30 urte atzeratu garela ematen du".

zergatik ez ginen Zumaiaara joaten esan ziguten. Hala, elkarte batean bazkari bat antolatu zuten. Kantatzen hasi ginen, bat baxuarekin, bestea baioarekin... Hasi baginen hasi ginen. Ze ederki atera zen esaten zuten denek, jendea txaloka, gustura. Beste batean egin behar genuela.. Hurrengo asteen joan ginen berriro ere. Izugarritzko festa izan zen. Tarteka entseiatzeko gelditzen hasi ginen. Zumaian bertako hainbat ekintzatarako deitzen hasi ziren, gero Getariatik... Harrezkerotik gelditu ere egin gabe ari gara".

Askotan gertatzen den bezala, norberaren etxean, baino, kanpoan ezagunagoak dira Zubeldia eta Erauzkin. "Kostaldean ibiltzen gara gehiago. Zumaia da gure

kabia. Bertan dugu entseiu lekua. Zumaia, Getari, Aizarnazabal, Hondarribia... hor mugitzen gara batez ere. Goierrin abestuko genuen gutxiena, eta hori hemengoak izanda eh? Duela sei bat hila-bete Ormaiztegin izan ginen eta batek baino gehiagok galdetu ziguten ea zer egiten genuen han. Goierrin ez dago euskal kanturako zaletasunik. Nafarroan asko eta kostaldean gehiago", dio Jon Zubeldiak.

Bilboko Alde Zaharrean

Hasierako "lotsak" galduta dituzte. "Egiten duzuna ondo samar egiten baduzu, eta ez da afalondoren edo gaueko ordubietan egiten duzun zerbait. Lanak aurretik eginda badaude, edozein lekutan kantuan aritzeko konfidantza

ematen dizu", gaineratu dute.

Euskal Herriko txoko askotan ibili dira kantuan. Bitxikeria bat kontatu digute: "Bilboko Aste Nagusian proba xelebre bat egin genuen. Mundu hau ez genuenez eza-gutzen, Bilboko Alde Zaharrerara joatea erabaki genuen. Proba bat egin behar genuela eta kalean jarri ginen kantatzen. Ea zer gertatzen zen. Jarri baginen, jarri ginen. 3 egunetan kantatu genuen, ordubete inguruan. 110 disko saldu genituen, eta gehiago ez zeudelako. Etxean grabatutako diskoak ziren. Dedikatorioak eta dena idatzi genitue diskoetan", aipatu dute.

Harrezkerotik, Barzelonako diskoetxe batean diskoa grabatu eta kalean dute salgai.

Datorren urtean Bizkaiko kostaldean kantuan aritzeko asmoa daukate.

Bidea eman

Joaten diren lekuan arrakasta izaten dutela diote. "15 orriko liburuxka bat banatzen dugu. Jendeari asko gustatzen zaio kantatzea. Entzuten bakarrik baldin badago, hiru edo lau entzungo ditu, baina liburuxka banatuz gero, eskerrak liburuxka bukatzen denik. Inor ez da mugitzen".

Jendeak kantatu dezan, jendea zirikatu nahi dute, bidea jarri. "Jendeari bidea jarri behar zaio kantatzeko, jendea bultzatu behar da. Liburuxkak banatzen ditugu abestien letrekin. Jendeari parte hartzeko aukera eman ez gero, jendeak ere gozatzten du. Gurekin eszenatoki

gainera kantatzera jendea ere animatzen da”.

Kantuaren merkaturak proban jartzen ari dira Sunbilatik Kantuz Kantukoak. Gurditxo berezi bat ere prestatu dute, musika tresnak eta material teknikoa eramateko. “Jendea poteatzen ari den lekura joan eta kantatzera joaten hasi gara. Aizarnazabalen proba egin genuen eta oso polita gelditu zen. Giro polita sortu genuen. Jendeak kantatu nahi duen giroa bilatu behar da”. Afalondorena egokia da Sunbillatik “Kantuz Kantukoentzat. Gurea ez da antzoki batean entzutekoa. Jendeak kantatzen duen giro hori”.

Errepertorio luzea daukate. Hiru bat orduan kantuan aritzeko adina kantu prestatuak dituzte. 115 guztira. Kantuak zeren baitan aukeratu dituzten galdetu diegu: “Kantuak aukeratzeko garaian, beti-betikoak kantatu beharrean, Iparraldeko kantuak ere hartzen ditugu, entzuteko errazak direnak. Orain dela 30 urte, Guk taldea bazegoen eta handik hartu ditugu kantu batzuk... Iparraldeko kantu batzuk badaude, hemen oso gutxi entzundakoak eta oso politak direnak. Hori bai, gure ikutuarekin. Kantu bati aire ezberdina ematen badiozu oso polita gelditzen da. Xalbadorren kantua hor dago. Xabier Letek kantatzen zuen eta Erramun Martikorenak beste ikutu bat eman zion eta Euskal Kantu Hoberenaren saria jaso zuen. Guk ere, gure erara moldatzen ditugu”.



Beraiek abestiren bat sortzen joateko ideia buruan darabilkite. Pare bat abesti nahiko moldatuta omen dituzte. Jon Zubeldiak solfeo ikasketak duela hiru urte bukatu zituen. “Taldea jotzeko behar-beharrezkoa da solfeo jakitea”, aitortu du Zubeldiak.

Argentina helburu

Beste leku bat ere begiz jota dute: Argentina. “Argentinara joan nahi dugu gure kantuekin, Euskal Etxeetara. Orain hemengo politika jarri den bezala, erdaraz kantatuta errazagoa izango da igual. Taldean argentinarrak daukagu. Teknika aldetik gehiena dakiena bera da. Instrumentu asko jotzen ditu”, diote.

Diskoa kalean

15 abesti grabatu bazituzten ere, disketxeekin izandako arazoak direla eta 7 abestiko diskoa kaleratu dute azkenean. Hauek dira abestiak: Habanera, Asto gaixua, Arbola gainean, Mendian gora haritza, Ai zer plazerra, Zazpiak oihaltetik eta



Lorettoa. Jon Zubeldiak gitarra eta hotsa grabatu ditu, Antton Erauzkinek ahotza eta ahoko soinua, Juan Carlos Sassok gitarra, banjoa eta kadakinoa eta Egoitz Mayak baxua eta koroak.

GRAFICAS EGUZKI
INPRIMATEGIA

NAFARROA ETOR, 17
Tel 943 88 94 82
Faxa 943 88 60 44
BEASAIN

zuhatzki
Zurgindegia

Egurrezko leihoak, kontraleihoak, ateak eta eskailerak neurritan.

JANTZI ZURE ETXEA EGURREZ

Tfnoa.: 943 67 36 11 Faxa: 943 67 36 55
Cuatrovientos Industrialdea, 1
Txarama Auzoa 20491 LEABURU

SILVIA MIRAS CASASAYAS
ODONTOLOGOA
KOL. Zka: 649 RPS: 223/07

TEL./FAX: 943 88 92 87
SAN INAZIO KALEA, 2
20200 BEASAIN - (GIPUZKOA)

Urriaren 31-n Lazkaon GOIERRITARRAREN 20. eta
Hitzaren 5. urteurrenak ospatu genituen

Mila esker guztioi



Goian Takoloren emanaldia eta baurrak naiz belduak adi begira. Bebean berri kirol saioa egin zuten Idiazabal, Zaldibia, Zumarraga-Urretxu eta Gabiriako ordezkariak.





Giro bikaina eta jaki ederrak nagusitu ziren afarian. Bertsolariak eta trikitilariak izan ziren berriz, Agustin Mujikaren laguntzarekin gaua girotu zutenak.



Euskal Pirinioen itz



Ordiziako talde batek 20 etapatan burutu du zeharkaldia

Mendizaleen zerrenda

Agustin Cacho
Josefina Arratibel
Juanxo Sarriegi
Mitxelo Lizarazu
Angel Arsuaga
Pedro Irastorza
Silvestre Galparsoro
Juan Mari Ezeiza
Jose Mari Barandiaran
Jose Ramon Munduate
Isidro Barandiaran
Jose Angel Mintegi
Joxe Imaz
Markos Etxeberria
Jose Mari Otegi
Damian Garmendia
Koldo Auzmendi
Juan Barandiaran
Luis Garcia
Agustin Aierbe
Juanjo Mujika

Euskal Pirinioen zeharkaldia burutu berri du goierritar talde batek, GR-10 eta GR11 bideak jarraituz. Maiatzaren 13an hasi eta urriaren 29an bukatu zituzten mendi ibilbideak. Hondarribian azken etapa burutu zuen 21 lagunekoko taldeak. Parte hatu dutenen (Ordizian bizi diren ataundarrak gehienak) izenean Juanjo Mujikak, Koldo Auzmendik eta Pedro Irastorzak eman digute zeharkaldiaren berri.

zulia



20 egun, 405 kilometro, 109 ordu

Ibilaldia	kilometroak	noiz	iraupena	zenbat ibiltari
1. Hendaia-Olheta	18	2009-05-13	5,52 ordu	14 lagun
2. Olheta-Sara/Ainhua	23	2009-05-17	5,20 ordu	16 lagun
3. Ainhua-Bidarrai	22	2009-05-27	5,27 ordu	15 lagun
4. Bidarra-Baigorri	22	2009-06-02	5,57 ordu	16 lagun
5. Baigorri-Donibane Garazi	18	2009-06-09	4,15 ordu	19 lagun
6. Donibane Garazi-Pagaltzeta	15	2009-06-16	4,40 ordu	16 lagun
7. Pagaltzeta-Bagargi	23	2009-06-24	5,30 ordu	19 lagun
8. Bagargi-Logibarre	12,8	2009-07-01	4,45 ordu	21 lagun
9. Logibarre-Santa Grazi	22,6	2009-07-08	6 ordu	18 lagun
10. Santa Grazi-Arette	11	2009-07-15	5,3 ordu*	17 lagun
11. Arette-Lescun	16,4	2009-07-21	4,15 ordu	20 lagun
12. Lescun-Linza	17	2009-07-29	8 ** ordu	20 lagun
13. Argibiela-Izaba	12	2009-09-02	4,48 ordu	18 lagun
14. Izaba-Otsagi	23,5	2009-09-08	5,12***	19 lagun
15. Otsagi-Orbaitzeta	32	2009-09-24	6,53 ordu	19 lagun
16. Orbaitzeta-Ola Sorogain	26	2009-09-30	6,13****	19 lagun
17. Sorogain-Elizondo	27,42	2009-10-08	6,40*****	19 lagun
18. Elizondo-Lizarrieta	24	2009-10-13	5,20 ordu	15 lagun
19. Lizarrieta-Irun errepidera	25	2009-10-27	5,30*****	21 lagun
20. Irun errepidea - Higer	15	2009-10-29	3,22*****	21 lagun
Guztira	405		109,29 ordu	
Bataz beste	20,2		5,27 ordu	18 lagun

* Harpidia arrolako La Verna kobazuloaren bila, ordu eta erdi ibili ziren.

** Motxilen bila ordu bat gehiago ibili ziren.

*** Kakueta tontorrera igo eta jaitsi, 30 minutu.

**** Basoan GRTik kanpo ibili ziren.

***** Harrikulunkara igo eta jaitsi 23 minutu

***** Liburuak denborak gaizki adierazten ditu

Azaldu iezaiguzue nola sortu den ekimen hau.

Mujika: Aurrejubilatua eta jubilatua gara gehienak. Mendizaletasuna barruan daramagunez zerbitu egin behar genuela eta, nondik nora egin eta pentsatzen aritu ginen. 2008. urte bukaeran hasi ginen prestatzen. Itzuli hau bazegoela gogoratu ginen, eta Euskal Herria pixka bat ezagutzeko ibilbidea zen. Jendea bildu ginen, zenbat izango ginen, aurrekontuak begiratu... urte hasieran gauzatzeko modua izan genuen.

Aurretik ere mendian ibilitakoak al zarete? Taldekideak aurrez harremanik ba al zenuten?

Mujika: Bai, mendian ibilitakoak gara bai denok.

Auzmendi: Nahiz eta elkarrekin ez ibili mendian, elkarren eza-gupidea bagenuen.

Mujika: Hasieran 19 elkartu ginen. Gero beste bi gehitu dira. 21ek bukatu dugu azkenean. Bataz besteko partaidetza, 18 lagunekoa izan da. Batzuetan 21 ibili gara, besteetan 15. Horrek adierazten du, jendeari itsatsi egin zaiola, gustatu egin zaiola.

Auzmendi: Nahiz eta irteera beti egun berdinean ez izan, jendea moldatu egiten zen egun hori libre izateko.

Izan ere, zeharkaldi hau, ez duzue segidan egin. Zeren araber antolatu dituzue etapak?

Mujika: Astean behin etapa bat. egin dugu. Eguraldiaren arabera jartzen genuen eguna. Internetez kontsultatzen genuen, nahiko asmatzen dute, nahiz eta hego haizearekin ez hainbeste. Guk denbora daukagu eta zortea daukagu denbora erabiltzeko. Astearte, asteazkena edo osteguna izan behar zen eta hiru egunetako bat aukeratzen genuen, eguraldi hobentxona iragartzen zutena.

Irastorza: Eguraldiarekin zortea izan dugu. Bi etapa bakarrik atzeratu ditugu.

Auzmendi: Hendaatik hasi eta lehenengo bi irteeratan, Larrungo punta ikusi gabe izan ginen. Bueltakoan berriz, hain eguraldi ona nola eduki dugun, beti bistan izan dugu.

Aurretik ezagutzen al zenuten ibilbidea?

Auzmendi: Zatiak bai.

Mujika: Zati asko bai. Guretzat, aspaldi ibilitako mendietan eta bideetan ibiltzea, eta gogoraraztea izan da. Beste batzuk, berriak izan dira.

Bideak ondo markatuta al daude?

Mujika: Bai, Horretan ez dago inongo arazorik.

Auzmendi: Horretan ere zortea izan dugu. Nafarroako aldean, berriro berria aurkitu dugu. Liburuetan azaltzen zen, Nafarroa aldean, nahiko utzita zegoela eta kontuz ibiltzeko. Baina, berriro berriak daudela ikusi dugu.

Esperientzia polita bizi izan duzu orduan. Aberatsa.

Auzmendi: Bai, oso ona.

Mujika: Edozein talderentzat, gomendagarria gainera.

Auzmendi: Euskal Herriko txokoak ezagutzeko oso modu ona da. Bailerak, herri inguruak...

Zuek, taldekideak ezagutzeko aukera ere izango zenuten.

Auzmendi: Askotan presaka samar ibiltzeagatik, hitz egiteko denbora justu samar izan dugu, baina bai.

Irastorza: Hori hala da, ez dugu gehiegi hitz egiteko aukerarik izan. Aldapa dezente zegoen eta aldapa ere hitza moteldu egiten du. Niretzat polita izan da, bestela ez nukeelako inguru hori ezagutuko. Taldean joan beharra dago. Kotxean joaterik ez dago. Autobusean ondo ibili gara. Gainera, nahiko merke ateratzen da. Bidaia bakoitzeko 25 euro. Horrek ematen zigun, autobusa ordaindu, kafetxoren bat, garagardoren bat... Bazkaria geuk eramaten genuen.



Irteerak, goizeko 6etan edo 7etan izan dira eta 20 egunetan ez da inolako inzidentziarik izan. Elkartean, esandako orduan elkartzen ginen. Jendearen konportamentua oso ona izan da. Pausoa jartzen zutenek ere asmatu zuten. Egun asko izan dira, pertsona asko, ezberdinak... hortik ateratzen dudana ondorioa da, jendea gustura ibili dela.

Auzmendi: Bokadillo lehorra janz ez ibili gara eh? Inork ez deza-la pentsa banketeak egiten genituenik.

20 etapatan egin duzue zeharkaldia. Planteatu al duzue segidan egitea?

Mujika: Ez. Pertsona batek 20 egun jarraian hartzea oso zaila da. Horretarako talde txiki bat behar da. Gaur egun nork dauzka 20 jarraian hartzeko? Denok dauzkagu gure konpromisoak. Zeharkaldi hori honela egiten genuen, bestela horrelako talde handi batek egitea ez da posible.

Bestetik, 20 egun jarraian egiteko ere iraupena behar da. Sasoia behar da. Filosofia ez da hori izan. Filosofia izan da, Euskal Herriko hainbat leku historiko, mendi eta bide ezagutzea, baina lasai, taldean patxadan hartuta. Bestela, inolaz ere, ez zen gauzatuko gauzatu den bezala, eta ez zen gerorako gelditu den taldea izango. Nik neronik ere ezingo nuke, ezin ditudalako 20 egun jarraian hartu.

Irastorza: Formato polita da hau. Aurrejubilatuta edo jubilatuta egonda, 20 egun jarraian ezingo genuke egin.

Auzmendi: Kasu horretan, konbibentzia gaia ere hor izango genuke. 20 egunetan, hainbeste ordutan, elkarrekin egoteak, koskak ekarriko lituzke.

Mujika: Datorren urtean beste proiekturen bat ateratzen bada, formato honetan izan beharko da.

Auzmendi: Gure adinerako filosofia bezala gainera, askoz ere hobe da. Astearen behin horrelak aliziente bat edukitzea, irteera bat egin, lagunarte giroan egon... horrek bizitza gehiago betetzen du.

Horrelako plan bat egindakoan, normalean, gehiago ere ateratzen dira.

Auzmendi: Ondo bukatuz gero, bai.

Mujika: Atzo bertan hizketan aritu ginen, abenduan-edo erabakiko da. Bi proposamen daude mahaiaren gainean. Bata da, Euskal Herriko zazpi hiriburuak uztartzea. Billabonako mendi taldeak egindako zeharkaldia da. 875 km. dira guztira, 35 bat etapa. Luzatu daitezkeen etapak, nahi den erara. Bestea da, Euskal Herria zeharkatzen duten Santiago bideak. Kostaldetik joan eta barnealdetik etorri, edo alderantziz... Beste aukera bat baino gehiago ere badago, baina bi edo hiru hilabete utziko ditugu eta bazkari batean erabakiko dugu, eta ikusiko dugu zenbat jende dagoen prest bat edo bestea egiteko. Horretarako ere jendea behar da, kostu aldetik laguntzeko. Ez da berdina, 12ko talde bat edo 20koa izatea. Osasunak lagunduz gero, polita izango litzateke bat edo bestea egitea.

Bi proposamen aurrera ateratzeko, bi urte baino gehiago plana baduzue beraz.

Mujika: Hiriburuena aukeratzeko, pentsa, 35 aste dira. Abuztua kenduta, eta eguraldia kontutan hartuta, urte eta erdirako lana ematen du eta besteak urtebetekoa.

Zer gustatu zaizue gehiena?

Mujika: Niri Ipar Euskal Herria.

Auzmendi: Niri ere bai.

Irastorza: Barrualdean oso gutxi ibilita nengoen, eta zoragarria da bai.

Lekurik ederrenak

“Arette-Lescun, Lescun-Linza eta Bidarra-Baigorri ibilbideak gustatu zaizkit gehien. Hegoaldean, Kintoa eta Baztan aldean izan dira” Mujikarentzat lekurik ederrenak. Auzmendik ere Lescun ez zuen batere ezagutzen. “Aurreko etapetan berdeberde ibilita, arkaitza ikustea polita izan zen. Pagadietako guneak ere ikustekoak izan dira”, dio. Irastorzak bien hitzak baieztatzen ditu. “Iparraldean nekez ikusiko duzu aldatutako pinurik. Pagadiak, hariztiak eta gaztainondoak, sekulakoak. Hegoaldean, pagadi oso onak badaude Kintoa aldean, baina pinu gehiago”, gehitu dute.

Animalia ugari ere ikusi dute bidean: putreak asko, ardi mota ezberdinak, behor eta zaldi, pottoka... mota ezberdinak, Pirineoko behiak...

Goierri

Goierri Kolore, ekitaldiz beteta

Azaroak 5, osteguna:

18:00etan: Zaldibiako Karreane Kultur Etxean: Bizi istorioen kontaketak. Migrazio esperientzia bizi duen herritarren istorioak: jatorrizko lurraldearen testuinguru sozial eta pertsonala, emigratzearen zergatia, zailtasunak, aberastasunak... Hizlariak: Boliviarrak, marokoar eta portugaldar herritarrak.

Azaroak 6, ostirala:

17:00etan: Itsasondoko Gaztelekuan: Gaztelekuak aniztasunean hezitzen. 12-16 urte bitarteko gazteek kultur aniztasunaren inguruan sentsibilizazio joko dinamikoak.

19:00etan: Zegamako Udaletxeko Batzar Aretoa: bizi istorioen kontaketa: Andre Felipe Rios (Kolonbia), Otman Jahjah (Maroko) eta Anne Gragert (Alemania).

20:00etan: Ordiziako Plaza Nagusian: 'Azeriaren fabula', Los Titiriteros de Binefar taldearen eskutik (Aragoi). Euskaraz.

Azaroak 7, larunbata:

16:00etan: Lazkaoko Gaztelekuan: Gaztelekuak aniztasunean hezten.

17:00etatik 19:30era: Lazkaoko plazan, Haima erraldoia, arabiar kultura ezagutzeko tailerrak. Emakume arabiarrek bideratuta hainbat ekintza egingo da: dantzak, henna, tea eta gozoak, kontaketak, integrazioaren inguruko hausnarkeeta eta eztabaidak... Nazioarteko Elkartasunak antolatuta.

21:00etatik 23etara: Zaldibiako Antzokian, Munduko musiken jaialdia. Tomasita, Color Humano eta Akatz.

Azaroak 8, igandea:

17:00etan: Ordiziako pilotalekuan, Kaixo Lagun!. Kafe eta gozo goxoez lagundurik, goierritar zahar eta etorri berriak elkartu eta elkar ezagutzeko aukera izango da. Harremana erraztu eta giroa alaitzen Klownak lagunduko dute. Irekia da eta aurrez izena ematea gomendatzen da. Haur txokoa egongo da.

Goierri



Sustraiez Blai jaialdia

Azaroaren 7an, izango da Sustraiez Blai kultur elkarteak antolatzen duen Munduko Musiken Jaialdia, Zaldibiako Antzokian, gaueko 9etatik aurrera. Tomasito (rocka eta flamenkoa bat eginik), Color Humano (nahikoa da eszenategian ikustea konturatzeko musika generotik kanpo doan taldea dela) eta Bilboko Akatz arituko dira oholza gainean.

15 eurotan daude sarrerak salgai. Aurrez ere eros daitezke, Ordiziako Goierriko Baratzan eta Beasaingo Irizar jatetxean. Posta elektronikoko bidez ere lor daitezke: sustraiezblai@hotmail.com.

Zaldibiako jaialdira joateko, autobusak dohainik izango dira, ondorengo ordutegiarekin: 20:15ean, Lazkaon; 20:30ean, Beasainen (tren geltokia); 20:40ean, Beasainen (Ezkiaga auzoan); 20:45ean Ordizian (tren geltokian), 20:55ean, Ordizian (Otegin auzoan). Itzulerako autobusak, 01:30ean eta 03:00etan aterako dira.

Antzerkia Ordizian

Musika baino gehiago da Sustraiez Blai. Azaroaren 6an, antzerkia izango da Ordizian. Aragoiko Los titiriteros de Binefar taldeak, 'Azeriaren fabula' antzezlanak aurkeztuko du, euskaraz, Plaza Nagusian, iluntzeko 8etan.

Zatoz Zientziaren aurpegi alaienaren bila!

gizarte ekintza

hezkuntza

www.miramon.org

943 01 24 78

DONOSTIA

zer nahi duzu bihar?

www.kutxa.net

kutxa

ikaskide akademía

Joan Iturralde, 5 - 943 160 120 eta Urbialde plaza 7- 943 027 792

www.ikaskide.net

ESKOLA LAGUNTZA: Lehen Hezkuntza, DBH, Batxilergoa, Moduloak

HIZKUNTZA ESKOLA: Ingelera eta Frantsesa

UNIBERTSITATE MAILA: Goierriko Unibertsitatea

MEKANOGRAFIA eta INFORMATIKA

LAGUNTZA PEDAGOGIKOA: Irakurmena, kalkulua, ikasketa teknikak

Goi

943 16 00 56

goierritarra@goierrikohitza.info

Goierritarra aldizkaria

Mutiloa

Txerri azoka, azaroaren 8an

Bigarren urtez, Txerri azoka ospatuko dute mutiloak azaroaren 8an. Goizeko 10etan hasiko da festa, trikiti giroan. Goizean zehar, txerriarekin zerikusia duten hainbat ekintza izango da: txerri erretzea, txerriak salgai (jatorri ezberdinetako ekoizleak, kultura bakoitzeko ohituretan oinarrituak), txerri erakusketa, odolki eta txorizo dastaketa, urdaiazpiko mozte erakusketa eta dastaketa, umeak asto gainean ibiltzeko aukera. 12:00etan, odolkiak egiteko erakustaldia. Ondoren, erretako txerriaren dastaketa eta pintxoak. Eguerdi partean, bazkari herrikoia izango da.

Gaintza

San Martin jaiak

Azaroak 11, asteazkena:

11:00etan: Meza Nagusia ermitan.

Ondoren: Hamaiketakoa.

Azaroak 13, ostirala:

18:00etan: Haurrentzako ipuin kontalaria haurreskolan 'Kontu zahar eta berriak' Pello Añorga.

20:30ean: Afari-merienda eta gaztaina jana on-bide elkarte-an.

Ondoren: Trikitixa, Ander Matxain eta Mikel Urdangarinekin.

Ataun

Jentilen etorrera, azaroaren 7an

Jentilak, Sorginak, Torto, Basajaun, Samartin Txiki... berriz ere itzuliko dira Atauna, azaroaren 7an, arratsaldeko 6,30etan. Jentilen etorrera ikuskizuna antzeztuko du hainbat ataundarrek, Joxemiel Barandiaranek jaso zituen mitologiako pasarteak antzestuz. Ahoz aho eta mendez mende herriaren sinismen, kontu zahar eta leiendak oraindik bizirik dira oraindik ere Ataunen.

Goierrri

Mitologiatik artzaintzara eta meatzaritzara

Enirio-Aralar Mankomunitateko hamabost udalerrietan barrena 600 urteko historiari buruzko erakusketa bat antolatuko da. Azaroaren 11ra arte, Ordizian egongo da erakusketa, Barrena Kultru Etxean, astelehenetik larunabtera, 18:00etatik 20:00etara.

Hamar informazio panel jarriko dira erakusketan eta Mankomunitateari buruzko eta Aralar parke naturalari eta mendilerroari buruzko zenbait gairi buruzko azalpenak izango dira bertan. Mitologia, ekosistema naturalak, meatzaritza, baso eta abeltzaintza baliabideak, kobazuloen eta Erdi aroko gazteluen giza populazioa, natur azterketa eta historia, mankomunitateko oraina eta etorkizuna horma-irudien bidez era grafikoan eta atseginean azalduko dira.

San Telmo Museoak, Gipuzkoako Foru Aldundiko Ondare Kulturalako Zuzendaritzak, eta Eusko Jaurlaritzako Material Arkeologiko eta Paleontologikoen Biltegi Zentroak erakusketa osatzeko zenbait pieza utzi ditu. Piezak, meatzaritzarekin, arkeologiarekin, artzaintzarekin eta ikazkintzarekin duten loturaren arabera daude sailkatuta. Telebista monitore batek Aralarko argazkiak erakutsiko ditu.

Arkupe

ETXERAKO OIHAL ETA OSAGIAK

J. M. Barandiaran plaza - Tel.: 943 88 00 84 - ORDIZIA

LEIAR

KRISTALDEGIA

ERAKUSKETA:
Ezkiaga Pasealekua z/g
☎ 943 88 88 24

BILTEGIA:
Salbatore Industrialdea
☎ 943 88 60 70

BEASAIN



kutxa

Beasain

Udazken kulturalaren azken txanpa

Azaroak 5, osteguna:

21:00etan: Zine-kluba: 'El violin' filmaren proiektzioa, Usurbe Antzokian.

Azaroak 6, ostirala:

22:30ean: Argia dantza taldearen 'Axei boda' ikuskizuna, Usurbe antzokian. Sarrera: 10 euro.

Azaroak 7, larunbata:

10:00etan: Bertako jeneroen azoka berezia eta ardo azoka, Gernika pasealekuan.

12:00etan: Odolki-dastatzea eta lehiaketa, XXV. edizioa. Gernikako pasealekuko pilotalekuan.

13:30ean: Odolkiz egindako paella dastatzea, Gernika pasealekuan.

19:00etan: 'Mielotxin' folk taldearen emanaldia, Gernika pasealekuko pilotalekuan.

Azaroak 8, igandea:

08:00etan: Mendi irteera Murumendira eta Garina 'Finalistaren eguna' ospatzeko.

18:00etan: 'Mac Jeara's Band' taldearen emanaldia, Gernika pasealekuan.

Beasain

Antzerkia

Azaroak 13, ostirala:

22:30ean: Txalo produkzioak: 'Desnudos en Central Park'.

Azaroak 20, ostirala:

22:30ean: Kanpingas: 'Ni niaz Hektor'.

Azaroak 27, ostirala:

22:30ean: Emakume Ausartak taldearen 'Digaselo con Valium'.

Azaroak 28, larunbata:

17:00etan: Haur antzerkia: Txalo produkzioak: 'Kanpanila eta Peter Panen itzala'. 5 urtetik aurrera.

Abenduak 4, ostirala:

22:30ean: Gluglu produkzioak: 'Kanpaiak jo bitartean'.

Abenduak 11, ostirala:

22:30ean: Antzerki amateur: 'Maletak prest'.

Abenduak 12, larunbata:

17:00etan: Haur antzerkia: Gluglu produkzioak, 'Kika super-sorgina'. 7-11 urte.

Abenduak 27, igandea:

17:00etan: Haur antzerkia: Galiton: 'Babiliglub'. 1-6 urte.

Beasain

II. Mendi astea

Arrastaka Mendi taldeak, Beasaingo II. Mendi astea antolatu du. Ekitaldi guztiak, Udaletxeko Batzar Aretoan izango dira, 19:30ean.

Azaroak 17, asteartea:

Arrastaka Mendi taldeak urtean zehar egindako ekintzak.

Azaroak 18, asteazkena:

Martin Garcia. Alpeetan egindako herritarren lehenengo igorak (mendiko ezbehar tamalgari baten oroimenez).

Azaroak 19, osteguna:

Josune Bereziartu. Bide berriak. Ilusio berriak.

Azaroak 20, ostirala:

Adolfo Madinabeitia. Amin Brakk, Namkor bidea (Pakistan).

Azaroak 21 eta 22, larunbata eta igandea:

Esklada praktikak, Antzizar kiroldegiko rokodromoan.

Txapelketa Nagusia

Zubeldia eta Sarriegi,
Tolosan eta Hendaian

Hiru bertsolari goierritarrek hasi bazuten bidea ere, bat, atzean gelditu da. Joxe Munduatek ezin izan du finalurrekoetara sailkatu. Iker Zubeldiak eta Aitor Sarriegik, berriz bai.

Iker Zubeldia, Tolosan

Azaroaren 14an, Tolosako Usabal kiroldegian, 17,30ean, Igor Elortza, Sustrai Colina, Uxue Alberdi, Iñaki Gurrutxaga eta Ainhoa Agirreazaldegirekin batera arituko da zegamarra.

Aitor Sarriegi, Hendaian

Azaroaren 15ean, Hendaia kiroldegian, 17,30ean, Amets Arzallus, Jon Maia, Jone Uria, Julio Soto eta Onintza Enbeita izango ditu lehiakide.

Astigarreta

Auzoko jaiak

Azaroak 15, igandea

11:30ean: Meza, San Martin koruarekin.

12:30ean: Aizkolariak: Azurmendi eta Olasagasti.

13:30ean: Herri bazkaria.

Bazkalostean: Goikoetxea, Mañukorta eta Zeberio bertsolariak. Laja eta Landakanda trikitilariak.



RENAULT
LAZKAO GARAJEA

Tel.: 943 882 442 / 943 888 901 Faxe: 943 888 901
Senpere Industrialdea LAZKAO



izal

IMAZ eta CONTRERAS

PINTURA eta PAPERGINTZA

☎ 943 187 049
☎ 943 187 045
Ondramuño
baserría
IDIAZABAL



Txirrindulari lasterketa Ormaiztegin, 1927. urtean

Txirrindulariak ezkerretik eskuinera: Matias Apaolaza (Lezeta), ezezaguna, Frantzisko Iurrita (Mendizabal), Juan Manuel Mujika (Etxaburu) eta Joxe Domingo Iurrita (Mendizabalgo danbor).

Ezkerrean txapelarekin ageri dena Juan Mujika aguaziala da. Juan Manuel Mujika txirrindulariaren atzean dagoena: German Kanpos.

**biok**
zerbitzuak

Biok kudeaketa
fiskala
kontablea
merkatala
laborala

Tel 943 88 44 00
Faxa 943 80 51 27
www.biokzerbitzuak.com
Ordizia Urdaneta, 7

**GERTU**
European Year 2009
ENPRESA AHOLKULARIAK - ABOKATUAK

San Inazio, 5 - 20200 BEASAIN T: 943 16 21 92 F: 943 88 36 33
gertu@gertuasesores.com

**Mendizabal, C.B.**
ITURGINTZA - BEROGINTZA

Tel.: 609 614 552 (Iñaki)
659 644 221 (Xabi)
Txindoki, 23 - 4. ezk. **ZALDIBIA**

**MENDIZABAL**
abeltza intza

Bertako haragia baserritik zuzenean

686 325 511- Juan Antonio
686 301 313- Maria Luisa
galamendi@terra.es

Mendizabal Baserria
20.248-Arama (Gipuzkoa)



PSIKOLOGI KLINIKOA

**Argi**
Jose Ramon Pato Prieto
Psikologian lizentziatua
Elkargokide zenbakia: E-2644
RPS: 420/01

AURRE ZITA ☎ 943 887 221 ☎ 610 020 041
JM Arana, 1 - 2. esk. esk. **BEASAIN**

Helduen,
umeen,
bikoteen eta
sexologi
tratamenduak

Olagi
Sagardotegia
Jatetxea

Urte guztian
zabalik
Eguneroko menua
Karta
Sagardotegiko meua

☎ 943 88 77 26 **ALTZAGA**





MUTILOAKO

II. TXERRI AZOKA

2008ko azaroak 8

ANTOLATZAILEAK:



MUTILOAKO UDALA



Gipuzkoako Foru Aldundia



10:00etan: Azokaren irekiera ofiziala trikiti giroan.

Goizean zehar:

- Txerri erretzea.
- Txerrikiak salgai: jatorri ezberdinetako ekoizleak, kultura bakoitzeko ohituretan oinarrituak
- Txerri erakusketa.
- Odolki eta txorizo dastaketa.
- Urdaiazpiko mozte erakusketa eta dastaketa.
- Umeak asto gainean ibiltzeko aukera izango dute.

12:00etan: Odolkiak egiteko erakustaldia
Ondoren: Erretako txerriaren dastaketa - pintxoak.

14:30ean: Bazkari herrikoia.



SEMPERE KALEA. 7, 1. LOKALA BEASAIN

TLFNO. 943 887972 - FAX 943 888657

e-mail : barandi@barandiaranzeramikak.com

Barroko Aire



XXIV. MUSIKA BARROKOAREN EGUNAK

ORDIZIA

ELIZA NAGUSIA - 20:00 h

Azaroak 7

La Ritirata – Josetxu Obregon

Tamar Lalo, xirula

Daniel Zapico, tiorba

Enrike Solinís, gitarra barrokoa

Josetxu Obregón, biolontxelo eta arte-zuzendaritza

Azaroak 14

Iruñeko Katedraleko Musika Kapera

Kapera-maisua: Aurelio Sagaseta

Azaroak 21

Camerata Cambrensis

Zuzendaria: Caroline Collier

Azaroak 28

Concerto Donostiarra

Ana M^a Otxoa, Sopranoa

Ainhoa Zubillaga, Mezzosopranoa

Zuzendaria: Gotzon Arrizabalaga



Gipuzkoako Foru Aldundia
Diputación Foral de Gipuzkoa



Ordiziako Udala